

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 543

*IRAGARKIA, 2022ko urtarrilaren 12koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita proiektu hau: Lantaróngo udalerrian (Araba), Larrazubin, «Puentelarra Central» TZ berria.*

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) ezarritakoaren ondorioetarako, testu beraren azken xedapenetatik lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehatza eta jarduketa hau:

– Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU; egoitza: Gamonal IP, Alcalde F. Dancausa, z.g. 09007 Burgos.

– Eskaera: administrazio-baimena, exekuzio-proiektua onartzea eta onura publikoaren deklarazioa.

– Xedea: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.

– Erreferentzia: 01ATY 202100015.

Lantarongo udalerrian (Araba), Larrazubin, «Puentelarra Central» TZ berria.

– Linearen ibilbidea: Lantarongo udalerria.

– Proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.

– Aurrekontua: 118.814,69 euro.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau, eta batez ere proiektuek eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainontzeko titularrak jakitun egon daitezzen (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran jasotzen da), hain justu ere proiektua aztertzeko Industria Administrazioaren Arabako Ordezkaritzan (Samaniego kaleko 2, Vitoria-Gasteiz), dagokion udal-etxean edo [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioa azpiatalean):

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/energia-meategiak/hasiera/>,

Egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira (bi ale), aipatutako tokietan. Horretarako, hogeitaz eguneko epea egongo da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 12a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,  
JESÚS PASCUAL LORENTE.

2022ko otsailaren 1a, asteartea

## ERANSKINA

## UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

LANTARONGO UDALERRIAN (ARABA), LARRAZUBIN, LUR GAINEKO ZT BERRIA, LURRAZPIKO ERDI-TENTSIOKO LINEA, LURRAZPIKO BEHE-TENTSIOKO LINEA ETA «POBLADO ID» KTZKO ETA «GASOL-PUENTELARRA» KTZKO EZABATZEA

Zk.	Udalerria	Lurpe. pasa. zorta. (M2)	Okupaz. iraunko. [Kutxatila k, ZT] (M2)	Okupazio iraunkorraren deskripzioa	Aldi baterako okupazioa (M2)	Jabea	Polig.	Lursaila	Katastroko erref.	Mota	Erabiltzea	Parajea
5	Lantarón	16	-	-	38	Barne Ministerioa	2	192	Erreferentziarik gabe	Hiri lurzorua	Etxebizitza kolektibo irekia	-
6	Lantarón	24	2,00	11. (1) eta 12. (1) kutxatilak	93				Erreferentziarik gabe	Hiri lurzorua	Komunikazio -bidea	-
7	Lantarón	28	1,00	17. kutxatila (1)	89	Arabako Foru Aldundia	2	787	3502078700000 00000LV	Landa	Lehorreko laborantza	Bisoto
8	Lantarón	34	-	-	101	Jesús Yarritu Garoña	2	197	Erreferentziarik gabe	Hiri lurzorua	Lursaila, orubea	
9	Lantarón	21	2,00	19. kutxatila (1) eta 20. kutxatila (1)	68	Purificación Garoña Barron Jesús Yarritu Garoña	2	785	350207850A000 00000MY	Landa	Lehorreko laborantza	El Pobal